

# SEKULARPENEA ETA ERLIJIJOA

Felix Placer Ugarte

Giza historian zehar hainbat era ezberdinetara bizi eta ulertu izan dituzte sakratuaren eta profanoaren arteko harremanak. Gatazka askoko gai konplexua izan da horixe. Ik. Sakratua/Profanoa.

Alde askotariko eraginak eta baldintzak direla tarteko, gaur-gaurko bihurtu da arazo hori eta ikuspegi berriak agertu ditu, gure garaiko aldakuntza historiko, sozio-kulturazko eta ekonomikoek bizkortu besterik ez bait dute egin gizadiaren \*sekularpen-bilakaera, eta aldi berean galdera berriak eta gero eta errotikoagoak ipintzen ditu erlijioaren eta fedearen zentzuari buruz.

Jakintza ezberdinetatik, erlijiozko nahiz profanotatik abiatuz, hamaika bide urratu dute, gure garaiko egoera historiko honetan zer erlijiozkoa jasaten ari den lausoaldi edo ilunaldiaren gertakari horretara hurbiltzeko (1). Ezin izango dugu, beraz, gai hori agortuko duen azterketarik egin; erlijiozkoak mundu sekularatuan duen arazo horri dagozkion alderdi esanahitsuen eta argigarrien batzuk aurkeztu besterik ez dugu egingo.

Datu historiko batzuk emango ditugu, sekularpenaren bilakaera beronen ikuspegi diakronikoan jarriko digutenak; hortik abiatuz, sekularpenaren oraingo sorburuak eta beraren ondorioz esanguratsuenak sakonduko ditugu, horrek Euskal Herrian dituen ezaugarriak bereziki nabarmenduz (I).

Bilakaera hori, beraren koordenatu ezberdin eta anitzen artean kokatu ondoren, sekularpenaren gertakariaren definizioa ematen saiatzerik izango dugu, gure garai honetan horrek botatzen dituen erronkak eta horren aurrean hartzen diren jokabideak aztertzearekin batera; horrela, eta ondorioz, aipaturiko gatazka erabakior eta iraunkor horrek gaur hartu ohi dituen erantzunak agertuko ditugu (II).

## I. SEKULARPENAREN BILAKAERA

Zientziaren zorrotasunaz begiratuz gero, ez da zuzena, primitibo izatea eta erlijiodun izatea, alde batetik, eta modernotasuna eta sekularitasuna, bestetik, berdintzea, sekularpena ez delako gertakari modernoa soilik. "Sekularitasuna" ez da funtsean hiriaren produktua. Badira tribu-kultura sekularrak. Antropologoa bera ere ez da gauza bere materialak ikeritzeko, horretaz jabetu ez baldin bada" (2).

### A) ERLIJIJOAREN JATORRIAN

"Kristo aurreko VI. mendearen inguruan, gizadia bere baitaratzen eta bere buruaz jabetzen hasten bide den eta kritika-jarrera sortzen den hartan, erlijio-modu batzuk —\*jainismoa eta \*budismoa— agertzen dira, Jainkoarekiko inolako loturarik gabe bizitzeko benetako araubidea eratu nahi dutenak" (3). R. Panikkar—ek ongi adierazi du budismoaren sekularpen-zentzua honako liburuaren titulu iradokior eta orain-oraingo honetan: **Jainkoaren isiltasuna** (4). Ez dago gehiegikeriataraz erori behar, eta budismoa, gizadiaren erlijio zaharrene-tako hori, irakasbide ateo edo agnostikotzat ulertu; baina bai baiezta dezakegu, de-sakral-kuntza errotikoen eta sakonenetariko baten aurrean jartzen gaituela budismoak; Jainkoa erabat baztertu eta ukatu gabe, hala ere (5).

Zer sakratua demitizatzen duten beste hainbat joera ere, antzinako erlijioetan agertzen direnak, aipa genitzake: horietan nabari zaigu, nola gizona, historian zehar, zer sakratuaren eta zer profanoaren artean kulunkatu den; izan ere, Mircea Eliadeak dioenez, bi alderdiok munduan izateko bi era bait dira, gizakiak bere historian zehar eta bere bizitzaren barruan, bereganatu dituen bi egoera (6).

### B) BIBLIAN

Era berean, kristau- eta judu-tradizioaren jatorrian, sekularpen-joera esanguratsuak agertzen dira. Genesiako \*kreazioaren kondairak de-sakral-kuntza nabarmena adierazten dute,

mundu jainkoetsiaren ikuspegiak gaudituz (ik. Genesiaren lehen hiru kapituluak). Kondaira horien argitan, beren tinkotasuna eta eskukotasuna lortzen dute lagunek eta gauzek, eta ete-rik gabe, bereizkuntza nabaria finkatzen da jainkozkoaren eta gizonezkoaren artean. Bibliako beste liburu berriagoek ere gai bera nabarmentzen dute berriro; horregatik baieztatu genezake, baieztatu, benetan biblikoa dela sekularutasuna kontzeptua, eta berorrek adierazten dituela zehazkien, Itun Zaharraren arabera, gizon-emakumeen izaera eta helburua (7).

Ez dago zalantzarik, Jesusek hitzez eta egitez agertzen duen jarrerak erro-errotik garbitzen duela mundua eta giza bizitza edonolako sakralkuntzatik, \*hierofaniaren esanahi berria ekarriz: hau da, gizakiari edo gizarteari, politikari nahiz kulturari dagozkionak tinkotasun eta beregaintasun berekia iristen duela Jesusen mezuan. Ebanjelioaren ikuspegitik, adieraztezinako \*Misterioa da Jainkoa, \*askapenaren bideko zantzuetan agertzen dena (Lk 4,14-27) eta gizatarra den edozer gauditzen duena, gizon-emakumeek beren autonomia, askatasuna eta justizia lortzen duten, eta, beraz, Jainkoarekin nortasunezko harremanak izateko gauza diren neurriak, bere burua agertuz. Oraingo sekularpen-esperientziatik berriro irakurri beharra dago Jesusen mezua, kristau-sekularpenaren zentzu jatorria ulertzeko, baita beste garaietako eragin kultural, sozial eta politikoak hari erantsi dizkion ikuskera ideologikotu sakralduetatik erantzeko ere (8).

### C) KRISTAUTASUNAREN HISTORIAN

Etan harritzekoa, lehen kristauak ateotzat eta erromatar Inperioko jainkoen kontrako atentatzailetzat salatuta izana, kristautasunak zekarren de-sakralkuntzaren jitea kontutan izanik. Ez zuen, ordea, luzaroan iraun egoera horrek mendebaldean; eta erlijiozkoa mundu sekularren lurretara sartu zen ondoko garaietan. Edonolako sekularpen-bilakaera eragotzi zuen \*kristandadeak, politikaren mailan Konstantinok hasiera eman zionak; eta, ondorioz, kulturaren, gizarte-bizieraren edo politikaren edozein agerpe, funtsean sakraltaile zen ikuspegitik bizi, azaldu eta onartu beharra zegoen.

Eremu profanoaren alde guztietara sartzen da erlijiozkoa aro luze horretan eta sakratuzkoaren menpeko bihurtzen du. Profanoaren autonomiarik ezak, berriz, hauxe dakar historiako halako garai jakin batzutan: hots, politikazkoa bere aukerak zilegiztatzeko baliatzea erlijiozkoaz.

### D) ARO MODERNOAN

Aro modernoan hasi zen eta orain arte mamituz joan da sekularpenaren gaurko ikuskera. Errenazimentuko filosofia humanista berria, pentsamendu-metodoaren aurrerapenak (Descartes), zientzietako aurkikunde berriak (Koperniko, Galileo, Bacon): guzti horiek munduaren eta gizakiaren autonomia ipintzen dute aurrean. De-sakralkuntzaren bilakaera hori biziagotu eta bizkorragotu egin da XIX. mendean, ondoko eragile hauek direla tarteko.

#### 1. Politikaren eboluzioa

Estatuaren laiktasuna eta Elizarekiko beregaintasun eta eskukotasun osoa eskatzen dute ideia liberalek. Inguru sozio-politiko horren barruan agertzen da gizarte modernoaren kontzeptua, Eliza barnean kontraktasuna eta borroka pizten dituen bi kristautasun-moduren artean: kontserbakor eta sakraltailearen eta liberal eta sekularzailearen artean, alegia. Pio IX.ak *Syllabus*-aren bidez gaitzetsi zituen modernismoaren sekularpen-asmoak (9).

#### 2. Historiaren filosofia berria

Historia ulertzeko modu orokor berrirako oinarriak ipini zituen filosofiak; ondoren hegoalde ezkerrekoek, batez ere L. Feuerbach-ek, bere *Kristautasunaren muina* izeneko liburuan (10), erabat irauli zuten filosofia bera eta horren metodoa: "Hau dio filosofiak: zer gizatarra bakarrik da egiazkoa eta benetakoa, horixe bakarrik delako errazionala; gizakia da arrazoimenaren araua" (11). Orduarte desjabetu egin zuten gizakia, Jainkoa aberasteko; horrela dohain behinenak kendu dizkiote hari, eta Jainkoari egotzi, sakralduz. Behar-beharrezkoa da, beraz, gizakiak berea duena berreskuratzea, sakraltasuna gizatar bihurtzea.

### **3. Industri erreboluzioa eta pentsamendu sozialista**

Gure garaiko sekularpen-bilakaeraren eragile nagusien artean ez daude politika eta filosofia bakarrik. Ekonomiaren garapen biziak berarekin darama, XIX. mendearen hasieratik, soziologi gertakari berria, hau da, klase sozialen erakuntza dakarren industri erreboluzioa. Langile-mugimendua erabat sekularturiko eta erlijioaren kontrako egitura ideologikoen gain eratzen da. K. Marx-ek (1818-1883) aurrenik eduki zuen garai bat, bere doktor-tesikoan, erlijioa ukatu eta ateismoa baieztatu zueneko; baina 1884eko esku-izkribuetan \*humanismo jainkogabea baieztatu zuen; eta azkenik \*ateismoa bera ukatzera iritsi zen: "Jainkoaren ukapena da ateismoa; eta hori ukatuz baieztatzen du ateismoak gizakiaren izatea; baina sozialismoak, den bezainbat, ez dauka ukapen horren premiarik" (12). Erro-errotaraino eta mutur-muturreraino darama Marx-ek sekularpenaren ideia: gizakia bera da gizakiarentzat abiaburua, berak egiten duelako bere burua bere lanaren bidez historian zehar; gizakia du, gizakiak bere izaki gorena.

### **4. Nietzsche-ren "Jainkoaren heriotza"**

Ustekozko erlijiozko \*arrozketak oro gaindituz gizakiaren \*autonomia osoa bilatzen duen pentsabide eta ihardunbide sekular hori areago hedatu zuen F. Nietzsche-k (1844-1900), errotiko sekularpenaren beste eragile eta asmatzaile horrek. "Jainkoaren heriotza" jarri behar da oinarrian eta hasieran, gizakiari beraren ahalmen berekia eta beraren erantzukizuna itzuliko bazaizkio. Gainditu egin behar ditu gizakiak bere jainkozko proiektio guztiak, baztertu egin behar ditu sakralkuntzazko gezur guztiak, bere baitan indartu bere botere-nahia eta bere moral berekia.

### **5. Freud-en erlijio-kritika**

S. Freud-ek (1856-1939), batez ere bere hiru idazlanetan, erlijioari egindako eraso zuenekoak muin-muinean ikutzen du zer sakratua: hau da, erlijiozko sentimendua eta moralezko sena. Hauxe egiten saiatu zen psikoanaliaren asmatzailea: hots, haurtzaroko \*inkontzientek sortu duen gezurrezko ideia hori gizakiaren kontzientziatik erauztea. Gizakiaren barne-askapen osoa eragozten duten erlijio tradizionalaren gezurrezko sinbolo sakratuak baztertzen lagunduko du gizadiaren aurrerapen material eta adimenezkoak berak. Etikari oinarri berria ipini nahi dio Freud-ek, psikoanaliatik abiatuz; gizon-emakumeek osorik beren gain harturiko \*autonomian eta erantzuletasunean oinarrituriko, eta \*kontzientziaren patologia guztiak, baita erlijiozkoa ere, gaindituko dituen etika berria, alegia.

## **E) SEKULARPENAREN UNIBERTSALTASUNA**

Mendebaldeari eta herrialde garatuei dagokie batez ere gaingiroz marraztu dugun sekularpen-bilakaera. Baina kulturen arteko komunikazioa ari da garabideko herrialde guztietara joera berberak iritsi erazten. Gaurko sekularpenak baditu bere ezaugarriak guztiei dagozkienak; gizarte eta kultura bakoitzak bere berezitasunak, bestetan nahasi eta suntsiezinak, baditu ere, lan honen muge barruan aztertu ezin ditugunak. Soziologiak aurkituak ditu hainbat analisiren bidez de-sakralkuntzaren bilakaeran eragina duten mila eragileak, zenbait sintoma ezberdinetan nabarmentzen direnak: hasi \*erlijiozko praktikaren beherakada gero eta handiagotik, eta esperientziaren, jarreraren, hizkeraren eta komunikazio-moduen aldakuntza sakoneneraino (14).

Mundu berria sortu du dinamika sozial horrek, non erlijiozkoaren hainbat elementu, orain arte gizarteko erakuntza askoren lokarri eta zilegiztatzaile zirenak, itzaliz eta suntsituz bait doaz.

## **F) EUSKAL HERRIAN**

Europa barruan kokaturik dago Euskal Herria, eta, beraz, horko joera politiko, sozial eta kulturazkoen eraginaren pean dago. Baditu, ordea, bere ezaugarriak gure Herriaren sekularpenak, hain garrantzi handia izan bait du erlijiozkoak gure kulturen: "Los vascos fueron desligándose del animismo y empezaron a expresar su viejo humanismo en términos cristianos, tomando a Cristo como pauta y ejemplar par su conducta y el amor como base de los valores con los que se asienta el orden jurídico y moral y como aglutinante principal de la

convivencia humana" (15). Herriz euskaldun izatearen eta erlijioz kristau izatearen arteko harreman espezifikoa ez dute denek onartzen; hala ere, ez dago zalantzarik euskaldunon bizierako eta ohituretako maila guztietan erlijioak eragin erabakiorra ukan duela, Herri honi beronen tankera eta irudia ematean; benetan berorren ezaugarri nazionala gertatu da kristautasuna: "... es la fuerza coercitiva más considerable que cuantos informan a la sociedad vasca actual y la que le ha movido desde fechas bastante remotas en momentos decisivos" (16).

Hori dela eta, sekularpen-idea eta -bilakaerak oihartzun berezia dute gure artean, eta gatazka zorrotzak sortzen dituzte bai politikaren eta bai kulturaren alorrean (17). Dena dela, ukazina da gure euskal gizarteak izan duen sekularpena, gizarteko sail eta maila guztietan. Lehen marrazturiko pentsaerak eta modernotasunak orokorki adierazten duten guztia hemen dago gure artean ere, eta erreakzio ezberdinak sortu dituzte erlijiozkoaren aurrean, bereziki gazteen artean: erlijio-usaia --zeina sarritan Elizakoarekin berdintzen bait da-- duen edozeren kontrako ukapen.erotikoenetik hasi eta erlijioa alde batera uzten duen \*indiferentismoraino.

Jakina, erlijiozkoaren sentimenduak irauten du gure artean; areago, berrituz doa bide ezberdinetatik; geroago aipatuko ditugu bideok. Baina Euskal Herrian erlijioak zentzu berri-rik lortuko badu, soseguz gogo eman beharko dute \*fededunek sekularpenaren gertakaria; horrek emango bait die hemendik aurrera gure kulturari eta gizarteko bizierari aniztasun zabal berria. Ik. Kristau-erlijioa Euskal Herrian; Izadi-gurtza Euskal Herrian.

## **II. SEKULARPENAREN GAURKO ADIERA: ONDORIOAK ETA ERANTZUNAK**

Ondo oharerazten digu sekularpenaren konplexutasuna azaldu berria dugun ikuspegi historiko zabalak. Ez dago, beraz, garai guztietarako balioko duen haren definizio adierabakarrekoa ematerik. Horregatik gaurko sekularpenak dituen adiera edo ezaugarrien eta erlijioak gure munduan duen etorkizunerako ondorioen inguruan ihardungo gara.

### **A) FENOMENOLOGIA**

Fenomenologiaren ikuspegitik de-sakralkuntzat ezagutu daiteke sekularpena. R. Otto-k sumatu zituen argien eta zehazkien sakratuzkoaren alderdiak; kategoria irrazionaltzat hartu zuen berak; horren agerpideak eta ezaugarriak, berriz, hauek dira, haren ustez: \*sorkari izatearen sentimendua \*Misterioaren izugarria, handitasuna eta ahala, kemena, zerbait lili-ragarria, zerbait neurrigabea (18). Zer sakratua, Otto-ren ustez, hauxe da: barne-jarrerara, barne-sentimendua, inguruneke kinaden edo eragile okasionalen arabera ezaguerara agertzen eta nabaritzen dena (19). Mircea Eliade-k aztertu ditu \*erlijioen historian zer sakratuaren agerpideak: hala nola, mitoak, sinboloak, erritoak (20).

Ikuspegi horretatik begiraturik, sakralkuntzaren kontrako agertzen da sekularpena. Hau da, giza izatea, goragokoren baten, "erabat bestelakoaren" menpekotasunaren argitan ulertzen duen sakratuzkoarekiko sentimendua uxatzen edo garbitzen duen bilakaera da sekularpena, alde askotatik eragindakoa (21). Ik. Erlijioaren fenomenologia.

### **B) SOZIOLOGIA**

Soziologiaren argitan, fenomeno sozio-kulturazkoaren eran agertzen zaigu sekularpena, erlijiozkoari eta berorren erakundeei buruz, norbanakoen eta gizataldeen ohituretatik, jokabide sozialetatik, balore eta arauetatik askatzearen eran, alegia. Gizartearen autonomia eta laikotzapen gero eta handiagoak dakartza egoera berri horrek, iharduera profanoaren eta zer sakratuaren artean alor guztietan gero eta bereizkuntza errotikoagoa ezarriz. Ik. Erlijioaren soziologia.

### **C) FILOSOFIA**

Filosofiaren aldetik begiraturik, giza alderdi guztien, \*munduaren eta beronen legeen (izadiaren, kulturaren, balioen) autonomia osoaren baieztapena da sekularpena (22); ikuspegi horretatik, balore moralen edo etikaren sekularpenak duen garrantzia eta ondorioak azpimarratu beharra dago. Eboluzio sozialari buruz J. Habermas-ek duen teoriaren arabera, kanpotik

letorkiokeen edonolako arauen, edonolako heteronomia filosofiko edo erlijiozkoren menpetik ateratzera iritsiko da gizakia, errazionalkuntzaren eraginez. Moralaren oinarriak sekular-tzera eramango gaitu errazionalkuntza-prozesu horrek (23); izatez, agertzen ari da sekular-pen hori, balore moral profanoekiko sentikortasun berriaren bidetik; justizia, elkertasuna, askatasuna, berdintasuna, norbanakoaren duintasuna, eta, orokorki, giza eskubideak dira ba-lio horiek.

Laburbilduz, esan dezakegu, bada, Girardi-ri jarraituz, sekularpena, alderdi subjektibo-tik begiraturaz, \*libertatea eskuratzea dela, bai maila noetikoan, bai ontologikoan, eta, ba-tez ere, axiologikoan; alderdi objektibotik begiraturaz, berriz, bere burua nahikotzat daukan munduaren finkapena dela (24). Ik. Erlijioaren filosofia; Autonomia.

#### D) SEKULARPENAREN ONDORIOAK

Zeintzuk dira sekularpenaren ondorioak: gure garai honetan bere gailur historikoa lortu duen sekularpenarenak? Hasieratik nabaritzen duguna zera da: horren orokortasuna, diren guz-tiak, objektiboak eta subjektiboak, denak harrapatzen dituena. Erro-errotik galderapean jartzten ditu horrek gizakiaren zera guztiak. Hain zabala izanik sekularpena, ez da harritze-koa horren oraingo eta ikuskizun diren ondorioei buruzko interpretazioak oso ezberdinak iza-tea; alde batetik, Jainkoa behin-betirako baztertuko duen sekularpen erabatekoaren dinamismo gerazina baieztatzen bait dute batzuk; beste batzuk, berriz, kristau-sekulartasuntzat ulertzen bait dute, hots, erlijiozkoaren bururapen berria ekarriko duen sinesteen garbikun-tzatzat. Ezagutzaren soziologiarentzat hipotesi horietako bat bakarra ere ez da baliozkoa; nahiago du horrek hipotesi guztiak beraien erlatibotasun eta guzti hartu, horiek onargarri ala ez bihurtzen dituzten egitura aldakorren arabera; erlijioa, bere aldeko ala kontrako egoeren arabera da soilik, bestelako finkotasunik gabea. Ez da, beraz, erraza horren etorkizuna asmatzea. Egitura aldakor haietatik dago beti (25).

#### E) SEKULARPENARI BURUZKO JARRERAK ETA ERANTZUNAK

Gaurko sekularpenaren aurrean hainbat jarrera ezberdin hartu izan dugu; horiek lagundu digute sekularpenaren eta erlijioaren artean dauden erlazio teoriko-praktikoak argitzen. Errazegitzeko arrisku eta guzti, ondoko hauetara bil gunitzake joerok.

##### 1. Sekularismoa

Sekularpenari buruzko jarrerarik muturrakoena da. Militantzia ateotik sortzen da; Jain-koaren arazoa bera erabat baztertzeraz edo ukatzeraz jotzen du, zentzugabea bailitzan. Burura-tu ezineko arazoa gertatzen dira Jainkoa eta erlijioa, giza ezagutzaren barrutitik at bait daude. K. Marx jarrera horretxan aldekoa da. Neopositibismoaren abiaburu ideologikoetatik abiatuz, berriz, ipini aurretik suntsitzen da Jainkoaren arazoa, bere filosofiararen arabera, ateismo semantikoa baieztatzen bait du. Hau da: sasi-kontzeptu hutsekin, batere zentzurik gabeko hitz eta bestelako hizkuntz elementuekin, ari gara \*teologian, neopositibismoaren ustez (26).

##### 2. Erlijiozko axolagabetasuna eta agnostizismoa

Axolagabetasun erlijiozkoari buruzko txosten zabala argitaratu zuen 1978an Vatikanoko Ez-sinestunentzako Idazkaritzak. Jarrera berria omen da hori, sekularpenaren ondorioa eta ateismotik haratago dagoena. Honela deskriba daiteke, txostenaren arabera: bizitzaren di-mentsio erlijiozkoarekiko axolagabetasuna, adimenezkoa eta bihotzezkoa (27).

Aurreko beste jarrerak erlijiozko arazoa gogoz hartzea eta pentsatzea eskatzen zuten; axolagabetasun erlijiozkoak ez du horrelako ahaleginik eman nahi. Erlijiozkoa alde batera utzi: horra \*indiferentismoaren jarrera, besterik gabe. Horren ustez, erlijiozkoak ez du merezi buruzko nekerik. Gerta daiteke jarrera axolagabe, arduragabe eta ukapenezko hori ag-nostizismoa bihurtzea, sekularpenaren ondoriozko jarrera bait da hori ere. Baina agnostizis-moak elkarriketa onartzen du, eta K. Rahner-en ustez, alde onak ere ukan ditzake kris-tau-fedearantz; autore horren eritziz, jakinaren gain hartzen den agnostizismoa eta teolo-giak irakatsi duen Jainkoaren ulertezintasuna berdina dira (28).

### 3. Erlijiozko mugimendu berriak

Orain arte aipaturiko jarreraren aldean arrunt kontrakoak dira. Sakratuzkoa berreskuratze-ko ahalegina nabari da herrialde guztietan ustegabeko indarrez (29). Hainbat era ezberdinez ulertu ohi dute, azaldu dugun sekularpenaren kontrako fenomeno moderno hori: alde batekoek psikopatatzat edo sozialki zapaltzailatzat hartzen dituzte joera horretakoak (30); kontrako aldekoek, ordea, uste dute, fenomeno horren agertzea, uste sendo honek ekarri duela: gaurko gizarte-biziera gidatzeko errazionalismo zientziazkoa ez dela berez gauza, alegia (31).

Elkarren kontrako azalpen horiek, sekularpena bera, errazionalkuntza-prozesua denez, ulertzeko modu ezberdinetatik daude. Dena dela, fenomeno horiek kontutan hartzekoak dira, gero eta ugariagoak direlako eta, batez ere, zientifismoaren kontrako sakraltasunaren baiez-tapenari dagokionez, joera berri bat, soziologiaren aldetik garrantzizkoa, nabarmentzen du-telako.

### 4. Kristautasunaren aldetiko erantzunak

#### a) Jainkoaren heriotzaren teologoak

Teologi mota horren gogoeta-lanak oihartzun zabala izan zuen A.E.B.etan eta Europan. 60. hamarraldian indartu zen; gaurko gizaki sekulartuari mintza zekiokkeen teologia lantzea zuen bere helburua. D. Bonhoeffer (1906-1945) izan zen korrante teologiko horren aitzindari eta iradokitzaile nagusia; gauza izan zen bera, bere lekukotasunaren indar handiz eta teologiaz-ko edukin sendoz \*erlijio gabeentzako Jainkoa aurkezteko, sakratuzkoaren gailentasunetik ez, eta bai pobretasunetik eta ahuleziatik gizon-emakumeei mintzatuko zaien Kristo aurkezteko. **Jarkiera eta menpekotasuna** (*Widerstand and Ergebung*) liburuauren autorearen ustez, mundu hel-duan \*fededun moduan bizitzeak, Jainkorik ez bailitzan ("etsi Deus non daretur") bizitzea esan nahi du. "Jainkoa lan-hipotesizat jarri gabe munduan bizi erazten digun Jainkoaren aurrean gaude etengabe. Jainkoaren aurrean eta Jainkoarekin bai; baina Jainkorik gabe bizi gara. Prest dago Jainkoa, mundutik kanpora utzi dezagun eta gurutziltzatu dezagun. Ahalgabea eta ahula da Jainkoa munduan; horrelaxe bakarrik dago gurekin, horrelaxe bakarrik laguntzen gaitu. Mt 8,17-k adierazten du argi eta garbi, Kristok ez gaituela bere ahalmenaren bidez laguntzen, eta bai bere ahuleziaren eta pairamenaren bidez" (32).

Sekularpenaren argitan fedea berriro ulertzea (J.A.T. Robinson) (33), eta Jainkoa, beraren gizon egitearen eta gurutzeko heriotzaren bidez, historiarekin lotzea (J.J. Altizer) du helburu Jainkoaren heriotzaren teologiak. **Secular City** (34) best-seller edo liburu salduena-aren autorearen ustez, aukera benetakoa da oraindik kristau-fedea zibilizazio sekulartuko gizakiarentzat; horretarako beharrezkoa da izadiaren, politikaren eta etikaren de-sakral-kuntza, Eliza gisa kristauok mundu honetan Jainkoaren erreinuaren gertutasunaren zeinu iza-teko erantzukizuna har dezagun.

#### b) Europako teologia berria

Horrek benetan hartu du fedeaeren etorkizunerako erabakiorra den problema hori. Horren lekuko handienetakoa den teologoaren eritziz, "munduaren eta kristautasunaren etorkizune-rako, datozen hogeitamar urteotako arazo nagusia eta erabakiorra zera da: zein indar nagusi-tuko den azkenik gizadiaren historian: \*marxismoa, kristau-ebanjelioa ala errazionalismo kritikoaren teknokrazia. Horiexek ditugu aurretik, hain zuzen ere, gure gizartea hobetzera datozen indar-eragile edo bultzagarri historikotzat (35).

Norantz doa historia? Galdera horixe eta horri hegelianismoak eta marxismoak eman dioten erantzunak izan dira sekularpen-bilakaeraren giltzarriak. Europar teologo asko ari dira his-toria profanoaren eta \*salbamen-historiaren arteko erlazioa zuzenago bideratu nahian (O. Cullmann, W. Pannenberg, K. Rahner, E. Schillebeeckx, besteren artean). Azken batean, bene-tako sekulartasun kristaua bizigarri izango deneko aro berriaren galderei eta erronkei ire-kia egongo den kristau-ikuspegitik, sekulartasunaren bilakaera historikoa geure gain hartzea besterik ez da lan hori. Izan ere, sekularpena eta erlijioa ez dira elkarren kontrakoak; ez dute elkar ukatzera jotzen; alderantziz, harreman dialektikoan egon behar dute, kris-tau-pentsabide eta ihardunbide berritara iristeko, non gizakia, berorren jatortasuna eta \*autonomiarekin, Jainkoa topatzeko lekunea izango bait da.

Ondoko puntutara bil daitezke erlazio horren alderdi nabarmenenak:

- Erljioaren interpretazio-modu jakin batzuren kritika, \*marxismoaren nahiz \*positibismoaren ikuspegitik datozenena egiten du: edonolako erlijiozko pentsabide, bidegabek murrizten eta faltutuzen bait dute horiek.
- Historia profanoa eta \*salbamen-historia azaletik berdinetsi gabe ere, historia bakar bat besterik ez dela baieztatzen du, edota, bestela esanik, K. Rahner-en eritziz, historia osoaren ezkutuko alderditzat agertzen da albamen-historia, eta, beraz, historia profano osoarekin parekatzen da (36).
- Jainkoaren baieztapena eta gizakiaren baieztapena eta garapena ez daude elkarren kontra: "Absolutua bertan dagoeneko (*Dasein*) lekutat, aurkezten du Jainkoari buruzko irakasbideak "gu" a edo gizakion arteko \*mundua eta, beraz, bakoitza beraren subsistentzia banakoan eta beraren askatasun formal eta materialean erabat baieztatu behar dela esaten du. Hortxe, hain zuzen, "behar delako" hori erabatekotzat hartzean agertzen da formalki Absolutua kontzientzia moralean" (37).
- Gainera, \*fedearen bidez munduan diharduen Jainkoaren \*salbamena ezagutzea, mundu zuzenago, libreago eta sendeartekoagoaren alde gizon-emakumeek daramatzen askapenerako ahaleginekin lotuta dago eta ezin da horietatik bereizi. Aurrenik, \*teologia politikoak agertu zuen ikuspegi hori Europan (38); baina ondoren Latin Amerikako herrialde pobre eta zapalduetako \*askapen-teologiaren funtsezko intuizio bihurtu zen. Hementxe dago, Erteuropako teologia politikoaren eta Amerika latinoko askapen-teologiaren arteko oinarritzko bereizkuntza: gizarte pobre eta zapalduan eta pobreak aldeko hautuan oinarritzen dela askapen-teologia. Hortik begiratur, "askapen-teologiarentzat ez daude bi historia, eta bai gizakiaren bilakaera bakarra, Kristok, historiaren \*Jaunak, bere baitaratua; horregatik, giza historiaren muin-muina da albamen-historia" (39). Ez dago, beraz, etenik gizakiaren askapenerako ahalegine eta beraren albamenerako irekieraren artean; zeren eta Jesusen Erreinua bera gizon-emakumeak oinazetik, \*arrozketatik, bidegabekiarieztatik, \*heriotzatatik ateratzean bait datza (40).
- \*Utopiaren bidez beste zerbaite ere adierazi nahi da: hots, gizarte berriaren asmoa, non halako gatazkan dagoen munduko zer profanoaren eta sakratuaren arteko antinomiak gaitituak geldituko bait dira. Etorkizunaren ikuspena da utopia, non hainbat \*esperantza-modu, profano nahiz erlijiozko, bateratu egingo bait dira, oraingoz elkarren aurkako agertu arren. E. Bloch-en "esperantzaren abiaburua" delakotik abiatuz, eta horrekin elkarriketan edo, zera galdetzen dio bere buruari J. Moltmann-ek: ea Jainkoaren erreinuaren esperantza kristauak ez ote duen filosofo marxistaren "norberatasunaren aberria" delakoarekin bategiten --hor iritsiko omen du gizakiak bere utopiaren betetzea--, nahiz eta bien --filosofiaren eta teologiaren-- abiapuntuak ezberdinak izan. Hala ere, ezberdintasun horrek ez dio Moltmann-i eragozten zera esatea: Kristau-eskatologia "esperantzaren abiaburua" ireki daitekeela eta honek behartuko duela hori, bere edukina hobeto zehaztera (41). Utopia horretan konponduko dira behin-betirako sekularpenaren eta erlijioaren arteko, "nortasunaren aberriaren" eta Jainkoaren erreinuaren arteko kontraizanak. Ik. Jainkoaren erreinua.

## F) SEKULARPENEA ETA ERLIJIOA EUSKAL HERRIAN

Euskal Herriak historian zehar erakutsi duen erlijioerak bereziki gatazka-iturri bihurtzen du hemengo sekularpenaren bilakaera. Ez dago lan honetan horren alderdi guztiak labur azaltzerik. Oraingo egoera eta etorkizuna aditzera emango diguten puntu batzuk aipatu besterik ez dugu egingo.

Beste Herrietan bezala, gaurko Euskal Herrian ere badira jarrera eta joera ezberdinak sekularpenari dagokionez. Badira, alde batetik, pentsaera kontserbakorrak, Euskal Herri fedunaren ametsari atxekiak; badira, bestalde, gizarte laikoagoaren alde ahalegintzen direnak (42). Ikuskeria eta jokaera sekularizaleen eta bir-sakralizaleen arteko gatazka horren barruan agertu da \*milenarismoaren susmoa, zeinak euskal nazionalismoari egozten bait dizkie albamen sakral eta osoaren ametsa eta asmoa, non Euskal Herria aske eta zoriontsu izango bait litzateke berrito, orain igarotzen ari den ilunaldi honen ondoren (43).

Jarrera ezberdin horietan eta horien ulerpenetan ezkutaturik daude erlijioduntasun-sakraltasunen eta profanotasun-laikotasunen arteko erlazioen ulertzea eta egikaritze ezberdinak. Eliza Katolikoari dagokionez, galdera da, ea zein duen bere lekua gizarte honetan eta

ea nola jokatu behar duen gaur Euskal Herri zapaldua askatzeko borrokari atxekia dabilen fededunak (44). Ik. Eliza Katolikoa.

Hemengo ikuspegi soziokulturazko eta politiko berrietatik, esan daiteke Euskal Herri honetan sekularpena/erlijioa dialektikak bestelako ezaugarri dinamikagoak agertzen dituela, askapena/salbamena bikotearen bidez adierazten ahal dena. \*Sakratu-profanoen arteko harremanen burubide berri honek taldeen, politikoen nahiz erlijiozkoen, helburuak eta bitartekotza auziperatzen ditu. Erlijiozko taldeak ikutzen ditu zuzenean problema korapilotsu horrek; berorien erantzun praktikoei agertzen dituzte bakoitzaren jarrerak, euskal gizarte sekular-tuaren alde ala egoera bir-sakralduaren alde. Baina erakunde politikoei ere, erlijiozkoari buruz tarte egin nahirik ere, ezin diote ihes egin taldeko inkontziente horri --hots, herriaren gogabide eta mundu-ikuskerari--, horretxan azpian irauten bait du zer sakratu-mitologikoak (45).

Talde batzuk duten iraganeko mundu sakratuaren ametsa alde batera utzirik, esan daiteke, Euskal Herriaren sekularpen-bilakaera, gizarte-aldakuntzarako eta herri-askapenerako asmo eta ahaleginei barru-barrutik lotuta dagoela. Etengune horretantxe nabari dira elkarren kontrako jarrera banankorrek, azkenburuan gizarte sekular-tu mota ezberdinak lortu nahi dituztenak: mundu modernoan eta berorien errazionaltasunean geratzen dira tinko batzuk, halako elementu ezberdinen, nahiz erakundezkoen (estatu laikoaren, Elizaren) nahiz pertsonalen (kontzientzi askatasunaren) egoera juridikoa begirunez onartuz. Beste batzuk, berriz, Herri askearen eta munduko beste Herri zapaldu guztiekin elkarkide izango denaren utopiak eraginda, pobreen eta zapalduen egoeratik abiatuz gauzatu nahi dute gizarte berria, herriaren askapen-borrokaren bidez.

Sekularpenaren eta erlijioaren dinamismo sozio-kulturalen arteko erlazio gatazkakorren lekuko berezia da gaur Euskal Herria. Dialektika horren barnean, berriz, gizon-emakumeen askatasunaren eta berorien alde guztietako \*autonomiaren arazoa dago eztabaidapean, pentsa-bidez eta ihardunbidez. Baina giza askatasunaren zeruertzak irekita daude beti, eta, beraz, historian zehar egikaritzeko eta burutzekoa da hori. Gizatarkuntza-bide horretan, giza \*elkartearen eraketa berriaren aldeko ahalegintzat agertzen da sekularpena --bere okerrak eta zuzenak dituen ahalegina--, guztien askatasuna mamitzeo, elkarkete eta lagunarteko biziera zuzen eta bakezkoan. \*Askapeneko eginkizun lagunarteko eta elkarkete horretantxe aurkitzen dugu Jainko bizia, munduan gure artean bizi dena (46).

Ik. Kritika (Erlijioarena); Mundua; Ateismoa; Positibismoa; Zientzia eta erlijioa.

- 
- (1) Ik. Sekularpenari buruzko bibliografia: Instituto Fe y Secularidad: Fe y nueva sensibilidad histórica, Ed. Sígueme, Salamanca, 1972, 395-468 orr.
  - (2) DOUGLAS, M.: Natural Symbols, Londres, 1970; EVANS-PRITCHARD, E.: New Religion, Oxford, 1956. Biak aipatzen ditu J. BROTHERSEK: "Secularización: Realidad o fantasía", in: Concilium 81 (1973) 45-57.
  - (3) PANIKKAR, R.: "Le silence et la parole. Le sourire du Bouddha", in: Hainbat; L'Analyse du langage théologique. Le nom de Dieu, Aubier, Paris, 1969, 121-134 orr.
  - (4) El silencio de Dios, Guadiana, Madrid, 1970.
  - (5) MARTIN VELASCO, J.: "El proceso de la secularización desde la perspectiva de la fenomenología religiosa", in: Fe y nueva sensibilidad histórica (a.l.), 169 eta hur.
  - (6) Le sacré et le profane, Ed. Gallimard, Paris, 1967.
  - (7) GONZALEZ, A.: "La secularización desde la perspectiva del antiguo testamento", in: Fe y nueva sensibilidad histórica (a.l.), 201-254 orr.; IERSEL, B. van: "Tendencias secularizantes y sacralizantes en la Escritura", in: Concilium 81 (1973) 86-95.
  - (8) SCHILLEBEECKX, E.: Dieu et l'homme, Ed. du Cerf, Paris, 1965, 187 eta hurr.
  - (9) DENZINGER, Enchiridion symbolorum, 1970.
  - (10) Das Wesen des Christentums, 1841.
  - (11) G. GIRARDIK aipatua, in: El marxismo. Teoría y práctica de la revolución, Ed. Desclée de Brouwer, Bilbao, 1975, 302. or.
  - (12) G. GIRARDIK aipatua, in: a.l., 373. or.
  - (13) Totem y Tabú (1913); El porvenir de una ilusión (1927); Moisés y el monoteísmo (1938).
  - (14) PLACER UGARTE, F.: Desacralización y catequesis, Ed. PPC, Madrid, 1973, 63-76 orr.
  - (15) BARANDIARAN, J.M.: "Etnografía", in: Euskaldunak - La etnia Vasca, Ed. Etor, Donostia, 1982, 272. or.
  - (16) BAROJA, J.C.: Los vascos, Ed. Istmo, Madrid, 1980, 268. or.; BELTZA: Nacionalismo vasco y clases sociales, Ed. Txertoa, San Sebastián, 1976, 184-188 orr.



- (17) AGIRREBALTZATEGI, P. "Eliza eta politika Euskadin. La Iglesia y la política de Euskadi, in: Hainbat: Herria-Eliza. Euskadi. Pueblo-Iglesia, Ed. Añamendi, San Sebastián, 1978, 161-202 eta 240-278 orr.
- (18) OTTO, R.: Das Heilige. Über das Irrationale in der Idee des Göttlichen und sein Verhältnis zum Rationalen, Gotha, Klotz, 1929.
- (19) A.l.
- (20) ELIADE, M.: Le sacré et le profane, a.l.; Aspects du mythe, Ed. Gallimard, Paris, 1963; Tratado de historia de las religiones, Ed. Cristiandad, Madrid, 1982.
- (21) OTTO, R.: a.l.
- (22) GIRARDI, G.: "Sécularisation et sens du problème de Dieu", in: L'analyse du langage théologique, a.l., 441-458 orr.
- (23) CORTINA, A.: "Fundamentar la moral", in: Iglesia viva 102 (1982), 627-628.
- (24) A.l., 447. or.
- (25) BERGER, A.: Para una teoría sociológica de la religión, Kairós, Barcelona, 1971; Rumor de ángeles, Herder, Barcelona, 1975; LUCKMANN, T.: La religión invisible, Sígueme, Salamanca, 1973.
- (26) ANTISERI, D.: El problema del lenguaje religioso, Ed. Cristiandad, Madrid, 1976, 29. or.
- (27) Segretariato per i non credenti: L'indifferenza religiosa, Roma, 1978.
- (28) RAHNER, K.: "Der brennende Schmerz unserer Existenz. Glaubens-begründung in einer agnostischen Welt", in: Frankfurter Allgemeine Zeitung 84 (1982), "Bilder und Zeiten" eraskina (H. SCKETTEK aipatua: "del indiferentismo religioso al agnosticismo", in: Concilium 185 (1983) 239.
- (29) "Nuevos movimientos religiosos", in: Concilium 181 (1983).
- (30) WILSON, B.: Contemporary Transformations of Religion, Oxford, 1976 (D. ANTHONY, TH. ROBBINS eta P. SCHWARTK aipatua: "Movimientos religiosos y secularización", in: Concilium 181 (1983) 17.
- (31) ANTHONY, D.; ROBBINS, Th.; SCHWART, P.: a.a., 26. or.
- (32) Widerstand und Ergebung, München, 1951 (itz. frantsesa: Résistance et soumission. Lettres de captivité, Labor et Fides, Genève, 1963, 162. or.
- (33) Honest to God, Londres, 1963.
- (34) COX, H.: The Secular City, Macmillan, New York, 1965.
- (35) SCHILLEBEECKX, E.: Cristo y los cristianos. Gracia y liberación, Ed. Cristiandad, Madrid, 1982, 636. or.
- (36) RAHNER, K.: Escritos de teología V, Madrid, 1964, 121. or. eta hurr.
- (37) MANZANA, J.: "La unidad de la doctrina (superior) del saber, y de la filosofía práctica en el pensamiento último de J.G. FICHTE", in: Scriptorium Victoricense 28 (1981) 382-383.
- (38) CHAUFFLAIRE, M.; METZ, J.; HOUTART, F. eta beste: Práctica de la teología política, Ed. Sígueme, Salamanca, 1978.
- (39) GUTIERREZ, G.: Teología de la liberación, Ed. Sígueme, Salamanca, 1972, 199. or.
- (40) BOFF, L.: Teología del cautiverio y de la liberación, Ediciones Paulinas, Madrid, 1978, 88. or.
- (41) MOLTSMANN, J.: Teología de la esperanza, Ed. Sígueme, Salamanca, 1972, 466) or.
- (42) "Hacia una sociedad más laica", in: Herria-2000-Eliza 42 (1982) 9-39.
- (43) ARANZADI, J.: Milenarismo vasco. Edad de oro, etnia y nativismo, Ed. Taurus, Madrid, 1982.
- (44) MUJICA, G.: "El lugar social de la Iglesia en Euskadi-Sur. Interrogantes y desafíos", in: Herria-2000-Eliza 48 (1982) 19-26.
- (45) ORTIZ-OSÉS, A.; MAYR, F.K.: El inconsciente colectivo vasco. Mitología cultural y arquetipos psicosociales, Ed. Txertoa, San Sebastián, 1982.
- (46) MANZANA, J.: a.a., 387-388 orr.: "ex-sistencia viviente" edo "lebendiges Dasein", auto-rearen arabera; Vatikanoko II. Kontzilioa: Gaudium et Spes Konstituzioa, 34.

Itz.: Paulo Agirrebaltzategi